

ANTI BARBIAK

# SUPERMEGAEXTRAESKOLARRAK

Mercè Anguera

Bego Montorioren itzulpena

Desclée De Brouwer

# ANTI BARBIAK

Hamar urte dituzte. Kalekumeak dira, eta bizi diren auzoan denetik dago: etxe zaharrak eta etxe berriak, parkea, azoka, liburutegia, anbulatorioa... Auzoko ikastetxera doaz, eta, aurten lehen aldiz, eurak bakarrik, 5. mailan daude eta.

## MARTA

Ile gorrixka du, lasto lehorren antzekoa (harro eta tente ateratzen zaio burutik, benetan lastozkoa bailitzan, nahiz eta saiatzen den nola edo hala lotuta eusten). Betaurrekoak ditu, eta zer?; norbera den bezalakoa da. Garaia da, baldar samarra eta oso-oso berritsua... Familiarekin bizi da: gurasoak, amama, Helena (hamabost urteko ahizpa nagusia) eta Andres (neba txikia, umetxo bat).



# MARTA, ELI ETA NAO: ANTIBARBIAK DENAK BATENTZAT ETA BAT DENENTZAT

## ELI

Txiki samarra da (kakanarrua esaten diote).  
Iluna du ilea -ez luzea ez motza-, eta sudurra,  
txikia eta oreztaz betea. Izugarri azkarra da,  
eta ikastea maite du. Martak eta Naok ez dute  
ondo ulertzen nola den posible hori; primeran  
datorkie, alabaina, hura ondoan edukitzea,  
etxeko lanak egiteko orduan. Egun batzuetan  
amarekin (hobe esanda, umezainarekin) eta  
beste batzuetan aitarekin bizia da.



## NAO

Ile luzea eta liso-lisoa du, aurpegi borobila, gelako  
oinik txikienak eta txinatar-begiak. Ondo ematen  
diote, nolanahi ere, horixe baita bera, txinatarra.  
Txinan adoptatu zuten gurasoek, eta, behar bada  
horregatik, nahikotxo (gehiegi) mimatzen dute;  
Martak eta Elik esan ohi diote hori ez dela ona,  
baina hark ez die jaramonik egiten. Oso Antibarbi  
berezia da, izan ere, barbi bat ere baita, neurri  
batean.

# 1

— **I**kas daitekeen guztia ez dun eskolan ikasten.

Martak harriturik begiratu zidan. Tira, izan ere, esaldi bitxi samarra da hezkuntza fisikoko saioaren erdian eta horma-barretatik zintzilik zaudela esateko, baina, edonola ere, egia da.

Ezkerreko horma-barratik, Naoren ahots etena entzun zen:

—Egia dun, bai. Esaterako, une honetan, ni ez naun ezer ikasten ari. Eta txandala izugarri zimurtzen ari zaidan.

—Txandalak ez ditun zimurtzen, Nao; ez kezkatu. Eta orain, erlaxatu.

—Nola nahi dun, ba, honela erlaxatzea. Eskuak izerditan zeuzkanat ... labaindu egingo naun... jausi egingo naun! –oihu egin zuen Naok, eta, egiatan, jausi egin zen.

Horren aitzakiarekin, lurrera jaitsi ginen, hezkuntza fisikoko irakaslea korrika eta susto aurpegiaz hurbiltzen zen artean:

—Nao, a zelako kolpea! Mina hartu duzu? Zutik jar zaitezke? Itxaron, lagunduko dizut.

Naok denboratxo bat behar izan zuen altxatzeko, eta, zutitu zenean, hain zuen lortua sufrimendu eta esfortzu aurpegiera, ia-ia txaloka hasi ginela. Gelakide guztiak horma-barretatik jaitsiak ginen, jakina, eta denok joan ginen Naoren atzetik. Naok herren gehiegizkoa egiten zuen, eta, haren ondoan, irakasleak, zer egin ondo ez zekiela, ate ondoko eserlekurantz zeraman ukondotik helduta.

—Txinalka dabilela ematen du! —Maria Isabelek, marmarka eta kopetilun. (Halakoa da Maria Isabel: Naok, Martak edo nik egiten dugun edozerk izugarrizko amorrua ematen dio). Eta, hortzak estuturik, gaineratu zuen: Orain bai dagoela guztiz horituta!

“Arrazakeria nabarmena da hori” oihuka erantzuteko puntuan nengoen, baina ez nuen denborarik izan, ze, Ramonek, inor Naorekin sartzea barkatzen ez duenez, lurrera bota zuen Maria Isabel, ondo emandako —edo ez— bultzada batez. Eta neskak, jausterakoan, berarekin eraman zuen Mateo, ondoan baitzegoen, begiratu sabaian galduta. Maria Isabel negarrez hasi zen, lurrean, eta Borjak eta Pablok pilotan jolasteari utzi zioten, eta korrika hurbildu ziren (gimnasioan debekaturik dago pilotan aritzea, baina astakirten galantak dira, eta, gainera, irakaslea okupaturik zegoen Nao

zaintzen eta ezin zien errieta egin): haientzat, borroka on bat bazelakorik ez dago munduan. Maru bakeak egiten saiatu zen, baina beranduegi zen, ordurako Marta zaplaztekoak banatzen hasia baitzen –sentitzen dut esan beharra–. Normalean, ni ez naiz horrelako kontuetan nahasten, ez zaizkit eta egokiak iruditzen pertsona azkarrentzat, baina Maria Isabelek kosk egin zidan txorkatilan, eta hori gehiegizkoa zen. Labur esanda, irakaslearen txilibitua entzun genuen, baina ez genion horratio elkar jotzeari utzi. Kontrara, gogo handiagoaz ekin genion, jakin baikenekien laster laga beharko genuela, eta borroka on bat erdibidean uztea baino txarragorik ez dago...

Hainbeste txistu egiteagatik sagar gorria baino gorrituagorik gu banatzea lortu zuenerako, irakaslea zeharo haserreturik zegoen, normala denez, eta borrokan ibilitako guztiok zigortu gintuen zuzendariaren bulegora joatera. Gure eskolan, asko pasatzen garenean, zuzendariaren bulegora bidaltzen gaituzte, hark benetako errieta egin diezagun.

Zuzendaria emakume atsegina da, baina oso serioa. Sekula ez dizu oihurik egingo, baina, haserre egiten dizunean, oilo ipurdia jartzen zaizu, igartzen diozulako oso mintzen dela bere eskolako neska edo mutikoren batek astakeriak egiten baditu. Gainera, egiten dizkizun galderetarako erantzunak pentsatu behar dituzu, eta,